



FUNTSEZKO JARDUERAK

Hasteko, gure produktua egiteko zer osagai behar ditugun azalduko dugu. Alde batetik, entsalada osatuko duten produktuak beharko ditugu ([letxuga](#), [tomatea](#), [gazta](#), [olioa](#), [ozpina](#) etab.), eta gure kasuan, Euskal Herriko produktuak erosten saiatuko gara produktu lokalen erabilera suspertzeko.

Bestetik, bol-a egiteko pasta frolla beharko dugu eta honen ekoizpenerako beste hainbat osagai beharko ditugu; hala nola, [arrautzak](#), [irina](#), [gurina](#), gatza, azukrea... Hauek ere denda lokaletan erosiko ditugu. Honetaz gain, [agar-agarra](#) beharko dugu gelatina isolatzailea egiteko, [kristalezko boteak](#) olio eta ozipina sartzeko eta banbuzko sardexkak entsalada jateko. Gainera, enpresa batek behar dugun moldeak egingo ditugu bol-ak egiteko.

Produktua sortzeko, hainbat makinak beharra izango dugu: [labea](#), [hozgailua](#), [thermomixa](#), [labainak](#)... Prozesu guztiaz gu arduratuko gara.

Diseinuari dagokionez, gure entsalada kartoizko [kaxa](#) batean sartuta etorriko da, gure enpresaren logotipoa izango duena. Horretarako, enpresa batek gure kaxa pertsonalizatuak egingo ditu. Lokalaren kasuan, lokaleko paretak guk margotuko ditugu eta makinak guk ere erosiko ditugu, Yanci SL. enpresak ekarriko dizkigunak bere zerbitzuak kontratatuko ditugulako.

Garraioari buruz, alde batetik, enpresa bat kontratatuko dugu beharrezkoa den guztia transportatzeko, batez ere gure lokalera lehengai guztiak ekartzeko. Bestetik, gutako bat entsaladak bezeroei eramateaz arduratuko da.

Publizitateaz gu geu arduratuko gara. Hau gauzatzeko, sare sozialen erabilera egingo dugu, esaterako [Instagram](#), Tik Tok, Facebook eta Twitter. Bertan, gure produktuaren informazio guztia eskainiko dugu eta ekartzen dituen abantailak azalduko ditugu. Gainera, gure berezko web-gunea sortuko dugu.

Bukatzeko, gure herritik gertu dagoen [lokal](#) bat alokatuko dugu han gure produktua ekoiztu zein saltzeko. Lokal hau pertsona asko igarotzen diren leku batean kokatuta dago, Donostiaren erdigunean, eta behar dugun espazio guztia dauka.